

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA – OFFICE PUBLIC DE LA LANGUE BASQUE

2009ko Apirilaren 7ko Administrazio Kontseilua
Conseil d'Administration du 7 Avril 2009

Erabakien Bilduma

Euskararen Erakunde Publikoaren administrazio kontseilua 2009ko Apirilaren 7an bildu da, Max Brisson Jaunak kudeaturik, Baionako Kontseilu Orokorreko Kaserna ttipian, goizeko 10etan.

Relevé de décisions

Le conseil d'administration de l'Office Public de la langue basque s'est réuni à la Petite Caserne, au siège de l'OPLB à Bayonne à 10H, le 7 Avril 2009 sous la présidence de M. Max Brisson.

A] Bilkuran parte hartu dutenak :

Estadoaren izenean :

- Eric MORVAN jauna, Baionako Suprefeta, Philippe REY jauna, Pirineo-Atlantikoetako Prefetaren izenean.
- William MAROIS jauna, Bordaleko akademiako errektorea, Philippe CARRIERE Ikuskari Jaunaren presentziarekin.

Akitania eskualdearen izenean :

- Sylviane ALAUX anderea, eskualde kontseilaria, René RICARRERE jaunaren izenean.
- Jean LISSAR jauna, eskualdeko kontseilaria.

Pirineo Atlantikoetako departamenduaren izenean :

- Max BRISSON jauna, Pirineo Atlantikoetako Kontseilari orokorra, Lehendakariaren ordezkari.

Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren izenean:

- Jakes ABEBERRY jauna, Lehendakariaren ordezkari.

B] Parte hartu dute ere :

- Estebe EYHERABIDE jauna, Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendaria.
- Bernadette SOULE anderea, Euskararen Erakunde Publikoaren zuzendari-ordea.
- Dominique PONTACQ jauna, eragile kondularia.

A] Ont partipicié à la réunion :

Représentant l'Etat :

- M. Eric MORVAN Sous-Préfet de Bayonne, représentant M. Philippe REY, Préfet des Pyrénées-Atlantiques excusé.
- M. William MAROIS, recteur et chancelier des universités de l'académie de Bordeaux assisté de M. Philippe CARRIERE, Inspecteur d'académie.

Représentant le conseil régional d'Aquitaine :

- Mme. Sylviane ALAUX, conseillère régionale, suppléante de M. René RICARRERE, excusé.
- M. Jean LISSAR, conseiller régional.

Représentant le département des Pyrénées Atlantiques :

- M. Max BRISSON, Conseiller Général, représentant le Président.

Représentant le Conseil des Elus du Pays Basque:

- M. Jakes ABEBERRY, Délégué du Président.

B] Etaient également présents :

- M. Estebe EYHERABIDE, Directeur de l'Office Public de la Langue Basque.
- Mme. Bernadette SOULE, Directrice-adjointe de l'Office Public de la langue basque.
- M. Dominique PONTACQ, agent comptable.

C] Administrazio kontseiluan zirenak :

EEPko zerbitzuetatik :

- Ttitto AGUERRE jauna, hizkuntza karguduna.

C] Assistaiet également

Pour les services de l'OPLB :

- M. Ttitto AGUERRE, chargé de mission.

BILKURAREN IREKITZEA

Lehendakariak gaiordena orroitarazten du :

- 1) 2008ko kontu-hestea
- 2) Tokiko aginteei dirulaguntza
 - ↳ Mugerreko Herriko Etxea ATSEM formazioarentzat
- 3) Bestelako gaiak

OUVERTURE DE SEANCE

Le Président rappelle l'ordre du jour :

- 1) Clôture des comptes de l'exercice 2008
- 2) Aides à apporter aux collectivités locales
 - ↳ Commune de Mouguerre : Formation ATSEM
- 3) Questions diverses

1) 2008ko kontu-hestea

1. 2008ko ekitaldian mobilizatu baliabideak

2 636 314,41 €koak dira.

❖ 2 066 000€ko diru sartzea EEPren kideen ekarpenetatik dator :

Estatua - FNADT	206 666 €
Estatua - Kultur Ministerioa	206 667 €
Estatua-Hezkuntza Nazionaleko Minist.	206 667 €
Akitania Eskualdeko Kontseilua	620 000 €
Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orok.	620 000 €
Euskal kultura sustengatzen duen herriarteko Sindikatua	186 000 €
Euskal Herriko Hautetsien Kontseilua:	20 000 €

❖ 2008. urtean beste diru sartze zenbait izan dira, orotara 460 314,41 €koak.

- Eragile pribatuei zuzendua den dirulaguntza fondoarentzat Euskadi Autonomia Erkidegotik : 449 980 €
- Kudeaketa arrunteko produktuak : 3 584,41 €
 - Jatetxeetako txeekeen langileek egin diru-itzultzeetatik : 3 448,30 €
 - Jean-Claude Iriarten jatetxeetako txeekeen diru itzultzea : 46,25 €
 - Bil ta Garbiren Promocasheko erosketen diru Itzultzea : 89,86 €
- 2008ko proiektu deialdiko lehen isurpenaren diru itzultzea (proiektuak ez obratuak) : 6 750 €
 - Oreka elkarte : 630 €
 - Euskal Idazleen Elkarte : 6 120 €

❖ 2008/12/31n ez isuria hiztegi proiektuko ekarpena (buxeta gehigarria)

- Kontseilu Nagusitik : 50 000 €
- Eskualdeko Kontseiluak : 50 000 €

1) Clôture des comptes 2008

1. Ressources mobilisées au cours de l'exercice 2008

Elles s'élèvent à **2 636 314,41 €**.

❖ Les recettes proviennent à hauteur de 2 066 000€ des contributions financières des membres du GIP OPLB :

Etat FNADT	206 666 €
Etat Ministère de la Culture	206 667 €
Etat Ministère de l'Education Nationale	206 667 €
Conseil Régional d'Aquitaine	620 000 €
Conseil Général des PA	620 000 €
Syndicat Intercommunal de Soutien à la Culture Basque	186 000 €
Conseil des Elus du Pays Basque :	20 000 €

❖ Des recettes complémentaires ont été mobilisées au cours de l'exercice 2008 à hauteur de 460 314,41 €.

- Contribution de la Communauté d'Euskadi au fonds d'aide aux opérateurs privés : 459 980 €
- Produits divers de gestion courante : 3 584,41 €
 - Remboursement part salariale tickets restaurant : 3 448,30 €
 - Remboursement chèques déjeuner Jean-Claude Iriart : 46,25 €
 - Remboursement Promocash de Bil ta Garbi (achat cafés) : 89,86 €
- Remboursement du 1^{er} acompte de l'Appel à Projets 2008 (projets annulés) : 6 750 €
 - Association Oreka : 630 €
 - Association Euskal Idazleen Elkarte : 6 120 €

❖ Contribution pour le projet de dictionnaire non versé au 31/12/2008 (budget additionnel)

- Conseil Général : 50 000 €
- Conseil Régional : 50 000 €

2. 2008ko aurrekontuaren gauzatzea

2008ko ekitaldian, mobilizatu aurrekontuko **2 636 097,83€**ko baliabideak Administrazio Kontseiluak 2008an hartu zenbait gastu eta erabaki betetzeko erabili dira :

- ❖ 1 810 105,12 €ko gastuak, 2008an hartu engaiamenduei dagozkienak (ik. dokumentu honi erantsi taularen A zutabea)
- ❖ 825 992,71 €, 2008an hartu engaiamenduetan 2008/12/31an oraindik bururatu ez direnak (ik. dokumentu honi erantsi taularen B zutabea)

Buxetaren soberakina **216,58 €**koa da (2 636 314,41€ - 2 636 097,83€).

3. 2007eko ekitaldian egin gastuak

Orotara **2 457 901,60 €**koak dira (ik. dokumentu honi erantsi taularen G zutabea).

- ❖ 1 810 015,12 € 2008ko aurrekontutik hartu engaiamenduen gastuari dagozkio (ik. dokumentu honi erantsi taularen A zutabea)
- ❖ 459 649,29 € 2007ko aurrekontutik hartu engaiamenduen gastuari dagozkio (ik. dokumentu honi erantsi taularen D zutabea)
- ❖ 107 988,36 € 2006ko aurrekontutik hartu engaiamenduen gastuari dagozkio (ik. dokumentu honi erantsi taularen E zutabea).
- ❖ 80 158,83 € 2005eko aurrekontutik hartu engaiamenduen gastuari dagozkio (ik. dokumentu honi erantsi taularen F zutabea).

↳ Ekitaldiaren diru-emaizta honako hau da :

BALIABIDEAK - EGIN GASTUAK
(2 636 314,41 €) - (2 457 901,60 €) = **178 412,81 €**

2. L'exécution du budget 2008

Les ressources budgétaires mobilisées ont fait l'objet, au cours de l'exercice 2008, de dépenses et de décisions d'engagement d'un montant de **2 636 097,83 €** prises par le Conseil d'Administration au cours de l'année 2008 :

- ❖ 1 810 105,12 € de dépenses réalisées sur engagements pris en 2008 (colonne A du tableau ci-joint)
- ❖ 825 992,71 € d'engagements pris en 2008 et non encore réalisés au 31/12/2008 (colonne B du tableau ci-joint)

L'excédent prévisionnel du budget s'élève à **216,58 €** (2 636 314,41 € - 2 636 097,83 €).

3. Les dépenses réalisées au cours de l'exercice 2008

Elles s'élèvent au total à **2 457 901,60 €** (Cf. colonne G du tableau ci-joint).

- ❖ Elles correspondent à hauteur de 1 810 015,12 € à des dépenses relatives à des engagements pris sur le budget 2008 (colonne A du tableau ci-joint).
- ❖ Elles correspondent à hauteur de 459 649,29 € à des dépenses relatives à des engagements pris sur le budget 2007 (colonne D du tableau ci-joint).
- ❖ Elles correspondent à hauteur de 107 988,36 € à des dépenses relatives à des engagements pris sur le budget 2006 (colonne E du tableau ci-joint).
- ❖ Elles correspondent à hauteur de 80 158,83 € à des dépenses relatives à des engagements pris sur le budget 2005 (colonne F du tableau ci-joint)

↳ Le résultat comptable de l'exercice s'élève donc à :

RESSOURCES - DEPENSES REALISEES
(2 636 314,41 €) - (2 457 901,60 €) = **178 412,81 €**

4. Inbertsio eta amortizazioko gastuak

2008. urtean 14 903,81 €koak dira. Zati batentzat, leku aldatzearen ondorioz erosi behar izan zen materialari dagozkie.

2008ko amortizazio zuzkidura 12 268,34 €koa da.

EEP-ren sortzeaz geroztik, aktibo gordin ibilgetua, informatika, erreprografia, telefoniako materialez eta bulegoetaz, gehienbat osatua dena 63 884,84 €koa da :

- Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren lagapena (MOP finantzaketa) : 39 044,85 €
(Hasierako balioa : 48 510 €)
- 2005ean egin inbertsioak : 913,74 €
- 2006an egin inbertsioak : 2 657,49 €
- 2007an egin inbertsioak : 6 364,55 €
- 2008an egin inbertsioak : 14 903,81 €

Epe berean (lau urtez) amortizazioak 45 517,80 €koak dira.

Erabakia

Erabaki da gain honetako 2008ko finantza-kontuaren elementuak onartzea. Finantza-kontu hori dokumentu honi erantsi taulan laburtua eta zehaztua da (1. eranskinean).

4. Les dépenses d'investissement et d'amortissement

Elles s'élevèrent pour l'exercice à 14 903,81 € et correspondant aux achats liés au nouveau mobilier suite au déménagement et à l'achat de deux postes informatiques.

La dotation aux amortissements pour l'exercice 2008 s'élève à 12 268,34 €.

Depuis la création de l'OPLB, l'actif brut immobilisé essentiellement constitué jusqu'ici de matériels d'informatique, de reprographie, de téléphonie et de mobiliers, s'élève à 63 884,84 € :

- Cession du Conseil des Elus du Pays Basque (financement MOP) : 39 044,85 €
(Valeur initiale de 48 510 €)
- Investissements réalisés en 2005 : 913,74 €
- Investissements réalisés en 2006 : 2 657,49 €
- Investissements réalisés en 2007 : 6 364,55 €
- Investissements réalisés en 2008 : 14 903,81 €

Sur la même période (quatre ans d'exercice) les amortissements s'élevèrent à 45 517,80 €.

Délibération

Il est décidé d'approuver les éléments du compte financier 2008 ci-dessus synthétisé et détaillé dans le tableau joint en annexe 1.

Le Président <i>Lehendakaria</i>
Visa du Contrôle de légalité <i>Legaltate kontrola</i>

2) Tokiko aginteei laguntza : Mugerreko Herria

2006ko abenduan onartu Hizkuntza Politikarako Proiektuan, eragile publikoek (hauen artean elkargoekin finkatu partaidetzek) zuzenki abiatu eta obratu hizkuntza ekintzak garatzea aurreikusten da.

Horretarako, aurrekontuko lerro bat (120 000 €koa) sortua izan da 2008ko aurrekontuan, ekimen horiek sustengatzeko asmoz.

Eskaera

Joan den 2008ko abenduaren 17ko administrazio Kontseiluan Urketako Herriak egin zuen gisan, Mugerreko herriak ere eskaera bat aurkeztu digu esparru honetan : Euskarazko formakuntza AELAE (Ama Eskoletako Lurraldeko Agente Espezializatu) batentzat, 2009ko eskola sartzean gela elebidun berri bat zabalduko baita herrian, eta eskolan berean langile elebidun bat ere ez baita.

→ Formakuntza plangintza : Martxoaren 25ean hasirik

- 23 aste x 3 oren = 69 oren
- 20 oreneko 2 ikastaro trinko = 40 oren
- 21 eta 18 oreneko 2 ikastaro = 39 oren
- Mailaren berreskuratzea = 8 oren

OROTARA 148 oren + 8 oren

→ Formakuntzaren finantzaketa :

Talde prezioa : 64 €/ oren talderaentzat

- Formakuntzaren kostua 148 oren x 64 € /10 = **947,20 €**
- Mailaraztearen kostua 8 oren x 20 € = 160 €

OROTARA = 1 134,20 €

Eskaeraren azterketa eta proposamena

Mugerreko Herria, Urketakoa bezala, Errobi-Aturri Herri Elkargoan parte hartzen baitu, EEPk azken honetako Lehendakariari proposatu dio usaiako antolamendua abian jartzea. Horren arabera, elkargoen (Herri Elkargoen eta kide diren Herrien) formakuntza plangintza EEPren eta dagokion lurraldearen arteko hitzarmenen esparruan kokatzen da. Azpimarratzekoa da hitzarmen horiek izenpetuak direla partaidetzan eraman diagnostiko-lan bat egin ondoren. Herri Elkargoko hautetsiek dispositibo hori abian jartzeko beharra ikusiko balute ere, txostena zein heinetan den ikusirik, momentuz ezinezkoa da.

2) Aides à apporter aux collectivités territoriales : commune de Mouguerre

Dans le Projet de Politique Linguistique adopté en décembre 2006, il est prévu de développer des actions linguistiques directement initiées et mises en œuvre par les opérateurs publics (dont les partenariats établis avec les collectivités).

A cette fin, une ligne budgétaire (120 000 €) a été créée sur le budget 2008, dans le but de soutenir ces initiatives.

Demande

Dans le droit fil de la demande formulée par la Commune d'Urcuit au Conseil d'Administration du 17 décembre 2008 dernier, la Commune de Mouguerre souhaite démarrer la formation à la langue basque d'une ATSEM, suite à la décision d'ouverture à la rentrée 2009 d'une nouvelle classe bilingue dans la Commune et dans l'absence totale de personnel bilingue sur l'établissement scolaire.

→ Plan de formation : démarré le 25 mars

- 23 semaines x 3 heures = 69 h
- 2 stages intensifs de 20 heures = 40 h
- Stages intensifs de 21 et 18 h = 39 h
- Cours particuliers de « Rattrapage » = 8 h

TOTAL 148 heures + 8 heures

→ Plan de financement :

Prix de groupe : 64€/ h pour le groupe

- Coût de la formation 148 h x 64 € /10 = **947,20 €**
- Coût du rattrapage 8h x 20 € = 160 €

TOTAL = 1 134,20 €

Analyse de la demande et propositions

La Commune de Mouguerre faisant comme Urcuit partie de la Communauté de Communes Nive Adour, l'OPLB a proposé au Président de cette dernière, de mettre en place le dispositif habituel dans lequel le plan de formation des collectivités (Communautés de Communes et Communes adhérentes), s'inscrit dans le cadre de conventions signées entre l'Office et le territoire concerné suite à un travail de diagnostic des besoins mené en partenariat. Même si les élus de la Communauté de Communes convenaient de la nécessité de mener cette démarche, l'état d'avancement du dossier ne le permet pas pour l'instant.

Halere, Mugerreko eskaerari erantzuteko asmoz, proposatua da Mugerreko AELAEa Baionako Herriak antolatu duen AELAEi eskaini formakuntza taldean sartzea. Azken hau ados da.

EEPri eskatu zaion dirulaguntzari dagokionez, Mugerreko herriak formakuntza plan orokorraren diruz laguntzea eskatzen du, agentearen "mailaratze" kurtsoak arras Herriaren gain geldituz.

Haur ttipienengan euskararen erabilera lehentasun bat dela Kontuan harturik, honako hau proposatzen da :

AELAEaren formakuntza plangintza orokorraren kostuaren **50% finantzatzea, 474 €** arte.

$$974,20 \times 50\% = \boxed{474 \text{ €}}$$

En revanche, pour répondre à la demande de Mouguerre, il est proposé d'intégrer l'ATSEM de Mouguerre au groupe de formation dédié aux ATSEM, organisé par la Ville de Bayonne. Cette dernière est d'accord.

Pour l'aide demandée à l'OPLB, la Commune de Mougurre demande un cofinancement du plan global de formation, le cout du « rattrapage » restant entièrement à sa charge.

Compte tenu que la présence de l'Euskara auprès des plus petits est une priorité, il est proposé de :

Cofinancer le plan global de formation **à hauteur de 50%**, dans la limite de **474 €** de subvention, **le coût de la formation de l'ATSEM.**

$$974,20 \times 50\% = \boxed{474 \text{ €}}$$

Le Président <i>Lehendakaria</i>
Visa du Contrôle de légalité <i>Legalitate kontrola</i>

3) Gainerateko gaiak

Ez da izan.

→ Bilkura eguerditan bukatu da.

3) Questions diverses

Pas de questions.

→ la séance est levée à 12H00.

Le Président <i>Lehendakaria</i>
Visa du Contrôle de légalité <i>Legalitate kontrola</i>